

Obras generales.—*Guztitariko idaztiak*.
Ciencias sociales y Derecho.—*Gizarte ta Lege jakin-gaiak*.

Filología.—*Izkuntza*.

Etnografía.—*Erikuntza-endagaiak*.

Prehistoria.—*Edesti-auñea*.

Medicina.—*Sendakuntza, Sendagintza*.

Problemas marítimos.—*Itxaso-arazoak*.

Bellas artes.—*Antze-gaiak*.

Literatura.—*Idazt-antze, Literatura*.

Publicaciones periódicas. — *Aldizkako-agergariak, Aldirokoak*.

Ta beste gairik izan ezta, otoitzez amaitu da batzaraldia.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1932'ko Ufirlaren 27'an.

Batzar ontan euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue maipuru, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea, Oleaga eta Belaustegigoitia Perderika. Otoitzez asi da.

1.º Euskaltzaindia biar Mezetara joago da, oitura duenez, batzaraldiroa asterakoan. Goizeko bederatzitertdietan, Santiago elizan, meza auxe izango da.

2.º «Gaceta del Norte»-k euskal-atal bat darabilki: ez da bañan Euskaltzaindiaren idazkerara tajutzen. Tajutu dedila, esan bear zaio.

3.º Aita Intzak irakuñi dizkigu, Atanasio Mokoroa jaunak iru idazti sailetatik atera ditun itz berezi batzuek: idazti oiek *Juan Bautista Agiñe, Kardaberaz ta frai Kristinorenak* dira.

4.º Izendegia. Onetzaz itz egin degu. Lakonbe jaunak, Ruso-Japon ta beste izkuntzetako izenak, Parisen bilduta, ekafi litzaizkiguke.

5.º Schuchard-Sari'rako lan bakaña eldu da : au aztertzeke batzorde bat izendatu da : A. Intza, Intzagarai ta Ormaetxea.

6.º Kisaldatzea egin da, egiteko garai bada ta. Autarkitara jorik auxe eldu zaigu :

Euskaltzainbururako : Azkuek, 7, utsean bat.

Iker-sailbururako: Kanpionek, 6; Eguskitzak, 1; Altubek beste, 1.

Jaur-sailbururako : A. Intzak, 7; Elissaldek, 1.

Zadorlaritzarako : Intzagarai'ek, 7; Olabidek, 1

Gutuntzaintzarako : Lakonbek, 8.

Diruzaitzarako : Altubek, 6; Elissaldek, 1; Lakonbek-beste, 1.

Beaz, beste bi urtelarako, Euskaltzaindiko Kisagoa onela dator :

Azkue : Euskaltzainburu.

Kanpion : Iker-sailburu.

A. Intza : Jaur-sailburu.

Intzagarai : Zadorlari.

Lakonbe : Gutunzai.

Altube : Diruzai.

Ta beste gai batzuek urango egunerako utzirik, oititzez amaitu degu batzaraldi au.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1932'ko Urti-laren 28'an.

Euskaltzain abek bildu gera : Azkue maipuru, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe